



IGELDO BILERAREN LABURPENA

Eguna / Día: 2015-11-23
Ordutegia / Horario: 17:00etan
Tokia / Lugar: Itxasaurre Kultur Etx



DEITUTAKOAK / CONVOCADAS:

Igeldoko Herri Kontseilua

Udal ordezkari politiko eta teknikoak

BERTARATUAK / ASISTENTES:

Igeldoko Herri Kontseilua:

Herri Kontseiluko 4 kide eta teknikaria

Udal Partaideak / Asistencias Municipales:

Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia / Concejala
Olatz Mujika, Teknikari / Técnico

Helburua:

Hiri eta Azpiegitura eta Zerbitzuen inguruan beharrak jaso eta hobekuntza proposamena jasotzea, hauen jarraipena egitea eta gai honekin zerikusia duten inguruko informazioa ematea.

Udala eta Auzo Elkarteen arteko gertutasunezko harremanak lantzea eta lan kolektiboa sustatzea.

Landutako gaiak

1. Eskola Zaharra
2. Errepideen egoera eskasa
3. Espaloia
4. Herri Lurrak
5. Obren Lizentziak
6. Errepideen garbiketa
7. Babes Ofizialeko etxeak

Gaien azterketa

Udala eta Igeldoko Herri Kontseiluaren arteko harremana: Igeldori buruzko erabakiak hartu aurretik Igeldoko Herri Kontseiluarekin kontrastatzea egokiena dela iruditen zaie, soluzio konpartitu eta egoki bat bilatzeko. Adibide bezala adierazi dute, Igarako igoera errepidean pasa dena: kanpineko nagusiak eskatu zuen bertara igotzeko errepidea karabanak ez igotzen uzteko eta Udalak edozein ibilgailu igotzea debekatu du. Hori dela eta, bizilagun batzuk hortik igotzerakoan multak jarri dizkiote udaltzainek. Denon artean soluzio egokiagoa bilatzea posible dela uste dute.

Igeldori begira 2016rako ze aurrekontu dagoen jakin nahi dute. Igeldoren inguruko sententziaren emaitzari (alde batekoa edo bestelako dela ere) aurre egiteko aurrekontuan ba al dago zerbait jasota?

1.- ESKOLA ZAHARRA:

Eraikina kanpotik saneatu da baina barrutik egoera oso txarrean dago, gaur egun ezin da erabili. Itxasurre txikia geratu da; hainbat behar badaudela jaso dute Igeldoko bizilagunen eskutik: eguneko zentro bat, gimnasio txiki bat, esaterako. Herri Kontseiluak, partaidetza prozesu bat egitea planteatu du Igeldon, bertako Eskola Zaharraren edukien gainean. Udal Gobernuak partaidetza prozesu honen emaitza errespetatzeko borondatea izango duen galdetu du **Herri Kontseiluak**.

2.-ERREPIDEAK:

- Igeldoko hainbat errepide oso egoera txarrean daude. Pilotegi eta Murgilko errepideak adibidez. Azken hau lbaetako kanpinaren obraren eraginez oso gaizki gelditu da.

Gai hau mugikortasunera eta Mantentze Zerbitzura bideratuko da.

- Larrialdietako zerbitzuak kexatu egiten dira askotan, ez bait dute abisua eman duen etxebizitza aurkitzen, galduta ibiltzen dira. Herri Kontseiluak proposatzen du errepide nagusietatik seinaleak jartzea, baserrien izenak eta kaleen izendegiekin.

Mugikortasunera bidaliko da proposamena (Fernando Atxiaga).

- Errepideetako bazterrak ez dira behar bezala garbitzen. Pilotegira ez dira sartu inoiz (Babes Ofizialeko etxebizitzaren ingurura). Zenbatero egiten diren eta desbrozatu noiz egiten den informazioa jasotzea eskatu dute.

Mantentze Zerbitzura bideratuko da gaia.

3.-IGELDOKO KASKOTIK KANPINERAKO ESPALIOA:

Duela urte askotako eskaera da hau. Oso arrisksua da oinez ibiltzea inguru horretan. Obra zatika egitea proposatzen du Herri Kontseiluak., jakin badakielako aurrekontu handiko obra dela

Gaur egun dagoen espaloiak ez du uzten haurren aukiekin ibiltzea eta errepidera jaitsi behar izaten dute. Blonda bat jar daiteke segurtasuna emateko.

Miloi bat euroko aurrekontua du espaloi osoa egiteak. Igeldoko Herri Kontseilua Igeldorentzat zein den lehen tasuna adierazi beharko luke, inbertsioen artean lehenesten duten eskaera zein den jakiteko.

4.-HERRI LURRAK:

Ez dira egoki mantentzen nahiz eta Parke Natural izaera aduen. Suteak ekiditeko proposamen bat landu du Herri Kontseiluak, bertako abeltzainek mantenduko lituzkete ingurune hauek. Hitzarmen proposamena bat bidali diote Ingurumen departamentuari, Behemendirekin tarteko, proiektua aurrera eramateko.

Ingurumenak oraindik ez du aztertu proposamena, urtarrilean bilera bat eskatuko da gai hau jorrazteko departamentu horrekin.

5.- OBREN LIZENTZIAK:

Udalak ez du eskatzen diren lizentzien jarraipena egiten eta Herri Kontseiluak hartzen du lan hau; polizi lana egiten dutenaren sentsazioa dute eta ez daude gustura horrekin. Udala eta Herri Kontseiluaren artean elkarlana egitea proposatzen dute gai honen inguruan.

Horretarako eta Igeldoren inguruan herritarrek egiten dituzten eskaera/nahiz proposamenen inguruan informazioa behar dutela adierazi dute, erregistrotik eta Udalinfotik sartzeko direnak alegia.

Donostiako Udalak gaur egun erregistrotik sartzeko diren gaien kudeaketarako prozedura eta aplikazio informatikoa berrikustea egin behar da. Beste auzo batzuetan eskaera hau ere jaso da eta horretan ari da lanean Udala.

7.- BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK:

Bi etxebizitza saldu nahi dituzte bertako jabeek eta zerrenda agortuta dago. Herri Kontseiluak eskatzen du zerrenda berri ere irekitzea eta lehenengo aldia egin zen baldintza berdinetan egitea; hau da, Igeldotarrak izatea, apuntatu daitzekeenak. Etxegintzarekin bilera izan zuten eta legez aukera badagoela badakite.

Etxegintzako teknikariek ez dute aukera izan Hirigintzako zinegotziarekin gai hau jorrazteko, urtarilerara begira landuko da eta Herri Kontseiluari erantzun bat emango zaio.



**Eskerrik
asko!!**